



3. DINAMIKA. NORBERE BURUA EZAGUTZEA: ZER BALORATZEN DUT LANEAN?

HELBURUA	Lanari buruzko hautemateak identifikatzea.
IRAUPENA	30' (5' materiala banatzea eta ariketa azaltzea, 10' banakako lana eta 15' bateratze lana)
MATERIALAK	Idazteko materiala "ZER BALORATZEN DUT LANEAN?" taula
GARAPENA	Ariketa dinamizatzeaz arduratzen denak ikasleei azaldu behar die oso garrantzitsua dela norberak bere burua ezagutzea eta lan bat aukeratzekoan zenbait faktore kontuan hartzea. "ZER BALORATZEN DUT LANEAN?" taula banatu (fitxa honen eranskina) eta adibideen bidez nola bete behar den azaldu behar da. Azpimarratzekoa da "aurretik lan egin dut" galderan boluntario lanak, begirale lanak, etab. sartzen direla. Ikasleei taula banaka betetzeko beharrezko denbora eman ondoren, egindako lana taldeko gainerako kideekin bateratu behar da, errealitatearekin bat datorren ikusteko.
OHARRAK	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Parte-hartzea. ✓ Lan produktiboarekin eta erreproduktiboarekin lotutako genero estereotipoak. ✓ Desberdintasunak lehentasunei eta arrazoiei dagokienez (generoa?) ✓ Talde barruko harremanak.



ZER BALORATZEN DUT LANEAN?

1. Zer esan nahi du lan egiteak niretzat?

2. Inoiz lan egin dut? Zer osagai positibo eta negatibo ditu?

3. Niretzat zer da garrantzitsuagoa? (lehenetasun ordena)

Ordutegia

Etiket hurbil egotea

Soldata

Beste batzuekin harremanetan egotea

Pertsona gisa errealizatzea

Etorkizuneko perspektibak / segurtasuna

Lanbide bat izatea eta ikasketekin lortu ditudan ezagutzak praktikan ipintzea

Erronkei aurre egitea

Independentea izatea

4. Nire ustez, zer zailtasun pertsonali egin beharko diet aurre lan egiten hasterakoan? Nola konponduko ditut?